Jardunaldien kronika (III)

Dialektologia eta aditzaren morfologia

Abuztuaren 28ko bi txostenak Dialektologia eta Aditzaren Morfologia zituzten gaitzat, Jacques Alliéres eta Robert L. Trask irakasleak adieraziak. Gehienentzako aurretikoak baino gai errazagoak ziren eta entzuleak atseginez jarraitu zituzten, bai txostenlarien mintzaldiak eta baita agerpenenak ere. Hauek, Rebuschi, Altuna, Satrustegi, Txillardegi, Irigoyen eta idazle honen gain joan ziren.

Euskalkiez hainbeste lan egin duen Alliéres hizkuntzalariak literaturaz eta gramatikaz gehien landuak diren lau euskalki nagusienen adierazpena egin zuen. Baina baita ere, dudamudarik gabe agertu zuen euskararen bizitza eta iraupena batasunari begira zegoela. Euskara batua hil edo biziko kontua zela. Hala ere, euskalkilari bezala, euskalkiok ez galtzearen aldekoa zela eta euskara batua eta euskalkien arteko oreka egokia lortu behar dela. Administrazioak batasuna eskatzen baldin badu ere, euskalki biziak direla batasunaren iturri eta haueri begiratu beharra dagoela.

Kazetarien galderak ere hemendik joan ziren eta idea bera agertuko zuen Tolosako irakasle argiak. Erdaretako hitzak onartzeaz ere galdetu zioten, eta Alliéres-k, puntu hontan ere, argi ta garbi agertu zuen bere eritzia: "Hizkuntza guziak, beti danik, besteen hitzak onartzera behartuak izan dira".

Euskalkien ikerketak bere espezialitate dituen hizkuntzalari honen eritziak Euskaltzaindikoak ditugunekin bat datoz, izan ere, Alliéres jauna aspalditik bai da gure elkartekide. Zer esanik ere Jacques Alliéres euskaraz ongi mintzatzen dela. Gainera, ezta izan kasualitateko gauza Jardunaldi hauetara zenbait Euskaltzaindikok euskalkien ikerketazko lanak aurkeztea, lehendik ere horretan arituak izan zirenez.

Robert L. Trask, Liverpool-eko irakasleak aditzaren morfologia izan du bere txostenaren gaia. Aditz forma mugagabeak, forma mugatuak eta aditz morfologia eta joskera aztertu zituen. Bere lanean, gainera, aditzaren morfologia ergatiboa aipatu behar da, hizkuntza kaukasikoen salbuespenarekin, euskara delako ergatibotasun hau gorde duen Europako hizkuntza bakarra. Bestalde, argi azpimarratu zuen, gure artean askotxo iraun duela euskal aditza pasiboa zen usteak, 8aina gaur egun teoria hau guztiz hila dela. Gure aditza zaila den ustez honako hau zion: "euskal aditzaren zailtasun hori euskara Europako beste hizkuntzetatik desberdina izatetik dator, euskarak egitura desberdin bat duelako; baina, berez, euskal aditzak ez du berezko zailtasunik".

Zailtasunak aipatzeaz, beste ohar bat ere egin beharrez gaude. Trask jaunak prentsaurrekoan agertu zuenez, Jardunaldi hauetan garbi ikusi da euskara gauza dela linguistika gaiok erabiltzeko; honegatik, "orainarte euskalari gehienok gure idazlanak erderaz idatzi ditugu, baina nire ustez bada garaia geure lanak euskaraz idazteko".

Zenbait Euskaltzaindikok erderetan egin zituzten beren agerpenak eta zer esanik ere eman dute euskaltzaleen artean. Egia esan, Nazioarteko Jardunaldiak zirenez, libre utzi zen bakoitzak nahi zuen hizkuntzan mintzatzea, inor behartzea itxurazkoa ez denez. Hare gehiago, batzuen ustez, egoki zen Euskaltzaindiko batzuk inglesez edo frantzezez mintzatzea, euskaraz mintzatzeko zailtasuna zuten euskalari atzerritarren lagungarri. Hau da, erbestekoak baztertuak bezala gertu ez zitezen. Dena dela, bakoitzak berak nahi zuena hautatzeko eskubide osoa izan zuen.

Egun hontarako Bilbo zaharreko jatetxe hertsi hoietako batean programatua zen bazkaria, baina bertako ohituraren arabera emakumezkoak sarrerarik ez dutena.

Antolatzaileok emakumeak ere sartzeko baimena eskatua genuen baina ezetza hartu ondorean, zenbait euskalarik beren emazteengandik bereizterik nahi etzutenez Ertzilla ostatura aldatua izan zen. Gainera, euskalarik lanerako gogoz zeudenez, arratsaldez hemen bertan iharraitu ziren elkarrizketak, hizkuntzalari eta filologia saileko matrikulatuak deiturik.

Egun hontaz eta goizeko bileren ondotik txostenlariak kazetariekin izan zituzten elkarrizketetan beste gertakari aipagarririk ere izan zen.

Adibidez, Alliéres jaunak gaztelera aski ongi zekin, baina euskara hobeki; aldiz, Trask jaunak, euskaraz oso ongi baina gazteleraz ez. Kazetarien artean guti ziren euskaraz zekitenik eta euskaratik gaztelerarako itzultzaileen beharrean aurkitu ziren.

Orain behintzat ezin esan euskarak ezertarako balio ez duenik eta gure hizkuntza hain beharrezko bihurtzeak zer pentsa emango al diote komunikabideekin arduraturik dabiltzenoi? Hala bedi. Dena dela, J. Alliéres frantzeza eta Suzuko Tamura japonesak elkarrizketa alai eta biziak izan zituzten euskara bide zelarik. Bada zerbait.

• Más ponencias y comunicaciones en los Encuentros

Las dos ponencias del día 28 de agosto, sobre Dialectología y Morfología del verbo, debido a los profesores Alliéres y Trask, como temas más asequibles, resultaron del máximo interés de la mayoría de los oyentes. Las comunicaciones, que discurrieron por los mismos temas, fueron presentados por Rebuschi, Altuna, Satrustegi, Txillardegi, Irigoyen y el que suscribe.

Jacques Alliéres, consideró los cuatro dialectos esenciales del euskara con una exposición general de los mismos, y a continuación matizó sin reservas que "la vida del euskara depende primordialmente de su unificación; ahora bien, soy partidario de que los dialectos no se pierdan. Hay que buscar el equilibrio que haga posible la supervivencia de los usos locales y la forma oficial unificada". En las declaraciones a los periodistas añadiría: "Sólo la unificación del euskara permitirá su supervivencia. Cuando se crea una lengua común siempre hay que sacrificar algo, como ha ocurrido en otras lenguas".

A la pregunta sobre la admisión de préstamos de otras lenguas, como se está haciendo actualmente del castellano y francés, el profesor de Toulouse respondería: "Todas las lenguas, desde siempre, están obligadas a aceptar los préstamos".

Las opiniones de este especialista en dialectología, que al propio tiempo es miembro correspondiente de Euskaltzaindia, coinciden con las teorías básicas que siempre hemos mantenido. Como tampoco es un hecho casual que algunos académicos hayamos presentado estudios sobre particularidades dialécticas.

Robert L. Trask, profesor de Liverpool, vino a exponer que el tema del verbo vasco le resulta apasionante, ya que muestra una morfología mucho más rica que la de otras lenguas europeas. Hizo una exposición de formas no finitas. Cada verbo vasco posee un conjunto de formas no finitas – infinitivos, participios, sustantivo verbal y formas relativas– . Verdaderamente, la mayoría de los verbos poseen bastantes formas que pueden ser conjugadas en su totalidad perifrásticamente. Y, siguió con una descripción de formas finitas y la morfología y sintáxis verbal.

Trask, que en la rueda de prensa se expresó en vascuence, insistió sobre la conveniencia de que todos los vascólogos comiencen a exponer sus trabajos en euskara. Pues, como se ha podido comprobar en estos Encuentros, nuestra lengua está capacitada para abordar estos temas. Por otra parte, algunos asistentes se extrañaron de que varios académicos presentaran sus exposiciones en otras lenguas, pudiendo expresarse en la suya. Sin embargo, la postura de tales académicos pudo ser por pura cortesía, puesto que se sabía que no todos los vascólogos invitados estaban en condiciones de mantener sus respectivas cooperaciones en euskara. De todas formas, hubo entera libertad de expresión.

Este día se contaba con la única tarde libre, pero los vascólogos prefirieron seguir las sesiones académicas y con tal fin se convocó a los licenciados y estudiantes de filología, matriculados a los Encuentros.

Jardunaldien kronika (IV)

Zerbait berri jakiteko bidean jar gaitzake, ordea

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak beren bukaerara heldu ziren abuztuaren 29an. Egun hontako txosten bakarra Mitxelenarena izan zen, bere gaitzat, Ikerketak etorkizunera begira.

Mitxelenak, Jardunaldi horietako adierazpenan laburpen gisako hitzekin hasi zuen bere mintzaldia. Dialektologia, bere era orokorrean, ia L.L. Bonaparte printzearen egunetan bezalatsu aurkitzen du, fonologia eta fonetikak ez oso aurreratuak, hiztegia eta morfologia franko landuxeagoak, joskera iker premia larri bazuen eta gure literatura behar bezala aztertzeke, hoiek esan daiteke direla orain euskal ikerlanak erakusten dituzten egoera eta premiak.

Mitxelenaren eritziz, hizkuntza izan da gure izaeraren habe eta sustengu nagusia. Euskararen inguruan sortu zen garai bateko Euskal Ikaskuntza, eta gure unibertsitate-bizitzak euskara izango du orain ere abiapuntu nabarmenetarik bat. Hala behar ere, horrek bildu baitu, Euskal Herriko semealabek ditugun ondasunen artean, etxeko eta kanpokoen begirik gehienak.

Jardunaldiotan, bai etxeko eta bai erbestekoen artean jende gaztea anitz nabari zen. Mitxelena ber-berak ere hau esango zigun: "Gogoak eta beharrak mugiturik doa jende gaztea gaur euskal azterketetara". Honek, linguistikaren ikerketan etorkizuna itxaropentsu erakusten digu, euskararen onerako noski. Hala ere, gogoan har dezagun Mitxelenaren esana: "Euskara ez da beste edozein hizkuntza bezalako zerbait besterik (euskaldunontzat gehixeago badirudi ere), eta galbidean genbiltzake beste hizkuntzetarik berezirik hartu nahi bagenuke".

Honela jarraituko zuen Koldok: "Badagu aho-hizkera eta izkribuzkoa. Ahozkoari dagokionez, badakigu, eta hortaz mintzatu zaizkigu hemen, zertan den gure dialektologia, Bonaparteren egunetan gelditua, gutti gora-behera. Hortik datozkigu presak, berehala egiten ez den gauza franko ez baita sekula egiteko biderik izango". Otoi, honek eztu esan nahi, zenbaitzuk uste duten bezala, atlas guzia osatu arte ezin dela euskara baturako erabakirik hartu' Zorionez, euskara baturako behar haina ezagutzen dira gure euskalki nagusienak, eta atlas on batek presa baldin badu zenbait euskaldi hilzorian eta beste asko ahulduz doazelako da.

Rotaetxe, Heath, Shimomiya eta Azurmendi-Olartek eman zituzten egun hontako agerpenak. Aipagarriak dira Karmele Rotaetxek hezkuntzan hizkuntzak nola erabili behar direnari buruz esan zituenak. Jeffrey Heath amerikanoak, euskarak oraindik hizkuntza zientziari eman dezakenaren garrantzia azpimarratu zuen.

Mitxelena ordea, pundu hortan, aski etsia agertu zen. Euskarak ez omen du behar bada oraingoz argituko aspaldian eskatzen zitzaion misterio ezkutu horietakorik. Zerbait berri jakiteko bidean jar gaitzake, ordea.

Egun hontan, Jardunaldieri amaiera emanaz, hizkuntzalari eta euskaltzainak Getariara jo zuten. Elkano zenaren hirian udaletxekoen ongi-etorria jaso ondorean Felipe arrantzale zaharrak gertatuko marmitakoa jan eta ondorean bere zuzendaritzapean itsas-gizonen kantak kantatu atzerritarren ohorez.

Arratsaldez, Urdanibiako zelaian, hizkuntzalari eta euskaltzainen arteako bilera. Jardunaldi hauen ondorioa nahi zen aztertu: Harremanetan jarraitzeko idazkaritza sortzeaz, hontarako batzorde bat izendatuaz, harremanokin ikerketak bultzaraztea, zenbait espezialista ikastaroak eta hitzaldiak ematera ekartzeaz, bekak lortzeko lan egiteak, lau urteren epean kongreso bat burutzeaz, ikerlan idatziak biltze eta argitaratze lanak eramateaz eta abar. Luzaz mintzatu ginen. Hain luzaz ere, Jaizubia jatetxeko nagusiak afaltzera dei egin zigun unera arte. Elkarrizketok probetxuzkotzat jo genezazke eta bere frutuak geroan ikusi behar.

Biharamunean, larunbata, nahi zuten edo ahal zuten atzerritarrekin Araba eta Nafarroa parte bat ikustera abiatu ginen. Hontarako gidari onak aurkitu genituen bidean gure lurraldeen geografia, historia, etnografia eta artea adierazteko. Gasteizen, Jardunaldion sigilua egin zigun Txillidaren zuzendaritzapean eraikitako Foru plaza ikusi genuen eta handik Errioxa aldera. Labastida, Laguardia, Viana, Torres del Rio igaroaz heldu ginen Lizarrara. Hemen, Erromes karrikako jauregia eta San Pedro eliza soilik ikustea zen gure asmoa, eta uste baino harrera hobea egin ziguten Lizarrako Udaletxean. Alkatearen ongi-etorriaren erantzunez mintzatu ziren Euskaltzaindiko zuzendaritzakoak. Lastima bertan esan zena jasotzeko kazetaririk eza. Jardunaldiontzat ezin zen bukaera hoberik asmatu eta han zirenen artean nekez ahaztu dira anaitasunezko agur haiek.

• Resultados y posibilidades

Los Encuentros Internacionales de Vascólogos, inaugurados el día 25 en Guernica y que se desarrollaron a lo largo de toda la semana en el campus de la Universidad del País Vasco, en Lejona, se clausuraron el día 29 con la ponencia del profesor Luis Michelena, más cuatro comunicaciones presentadas por Rotaeche, Azurmendi-Olarte, Shimomiya y Heath.

Michelena trató sobre las perspectivas de las investigaciones con mira al futuro. Resumió las jornadas y habló sobre prioridades en la recuperación de la lengua. Subrayó la gran importancia de estos Encuentros, señalando que "la relación que ha existido aquí ha sido sorprendentemente satisfactoria, porque han demostrado que hay un interés general. Pienso además que se han establecido las bases para una colaboración, que ya existía, pero que de ésta ha de salir mejorada, porque los estudios de lingüística vasca deben comenzar, pero no deben terminar. Es muy satisfactorio que extranjeros de distintos puntos del mundo vengan aquí. Pero lo realmente satisfactorio sería que a un congreso sobre lo que sea, por ejemplo, sobre las lenguas caucásicas, hubiera una representación vasca que fuera allí".

De entre las comunicaciones destacaron Karmele Rotaeche por sus planteamientos en aplicar la lengua en el sistema educativo, y Jeffrey Heath por sus elevados conceptos teóricos sobre lo que el vascuence puede aportar al conocimiento de la lingüística general.

Tanto entre asistentes como entre lingüistas se notó un número muy elevado de jóvenes, lo que augura un buen porvenir a los estudios de euskarología.

Este día, después de la clausura, lingüistas y académicos se desplazaron a Guetaria, donde fueron recibidos por la corporación municipal y almorzaron en una sociedad popular con el incomparable "marmituko" preparado por Felipe, "arrantzale" jubilado, que a los postres, él mismo dirigió el coro formado entre los asistentes para entonar canciones marineras vascas.

Por la tarde, en la campa de Urdanibia, tuvo lugar una importante reunión para tratar de resultados y posibilidades. Se estudiaron contactos, colaboraciones, intercambios, etc., con el fin de obtener en el futuro conferencias, cursillos, becas, publicaciones, etc. y tal vez culminar dentro de pocos años con un congreso. Las conversaciones duraron hasta que el señor Mangas nos reclamó a un refrigerio.

El día 30, con los extranjeros deseosos de conocer nuestro país, se realizó una excursión por tierras de Alava y Navarra. Guiados por personas expertas en geografía, historia, etnografía y arte. En Vitoria úicamente se visitó la nueva Plaza de los Fueros, diseñada por el escultor E. Chillida, autor del emblema de estos Encuentros. A continuación se recorrió Labastida, Laguardia, Viana y Torres del Río, para terminar en Estella, donde fueron recibidos por la Corporación municipal y se intercambiaron emotivos discursos de hermandad entre el alcalde de la ciudad y los directivos de Euskaltzaindia, tras la visita a San Pedro de la Rua y el Palacio de los Reyes, extraordinarios monumentos románicos.

Juan SAN MARTIN